

Jon Arretxe atzo, liburu berriaren aurkezpenaren aurretik, bi hizkuntzetako bertsoak eskuan dituela. Jon URBE | APRESS

## Jon Arretxek «612 euro» nobela berriari Toure afrikarraren istorio gehiago plazaratu ditu

Bilboko San Frantzisko auzoan bizi da Toure. Bat-batean bere ustezko anaiaren bisita jasoko du etxean, eta buruhauste galantak ekarriko dizkio. Bitartean, ahal duen moduan, baikortasunez egingo du aurrera.

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

Toure pertsonaia berreskuratu du Jon Arretxe idazleak bere nobela berriari. "612 euro" (Erein) lanean Bilboko San Frantzisko kalera eramango gaitu, bertako atzerritarrek, gehienak arraza beltzekoek, jasan behar dituzten egoeren berri emateko.

Basauriko idazleak 2012an "19 kamera" eleberriarekin hasi zuen bideari jarraipena eman nahi dio. Aspaldikoak dira "Oste-gunak" (1997), "Ostiralak" (1999) eta "Larunbatak" (2001) umorezko narrazioak, eta horiek alde batera utzita nobela beltzari heldu zion Arretxek. "Sustrai beltzak" (2006) edo "Xahmaran" (2009) bezalako nobelekin kontakizun gordinak ekarri zituen paperera, eta generoaren barnean bestelako ziklo bat hasi behar zuela erabaki zuen.

Hala, iaz kaleratu zuen "19 kamera" nobelan, hasierako istorioen umorea eta ondorengo liburuen gordintasuna nahastu zituen. Toure pertsonaia aurkeztu zigun, San Frantzisko auzo bilbotarrean bizi den gizon beltz bat. Istoriok izan zuen arrakastari ikusita bigarren zatia idazteari ekin zion, eta atzo liburaren aurkezpenean azaldu zuenez, hirugarren bat gutxienez izango da. "612 euro" lanak Bilboko auzoan bizi diren gehienek gorabeherak kontatzen ditu, bertan bizi den baten ikuspegiatik kontatuta. «Irakurleek esaten didate Toure pertsonaia gustuko dutela»,

### LETRAK AUZOTIK

**Nobela idazteko San Frantzisko auzoan bizi izan da Arretxe, bertako jendearekin, eta haietan oinarritu da zenbait pertsonaia sortzeko. Nobela beltza izanik, gehienbat auzoaren ezaguerri negatiboak ageri dira, baina idazleak argi utzi nahi du dena ez dela horren ilun.**

### UZTA GORRIA

**Arretxek betidanik idatzi izan du euskaraz gaztelaniaz baino gehiago. Hala ere, «612 euro» nobela gaztelerez ere kaleratu dute Euskal Herritik kanpo ere zabaltzeko. Erein argitaletzeko Uzta Gorria salla hainbat liburu azokataraz eramango dute.**

azaldu zuen Arretxek. Lehenengo nobelan muturra sartu behar ez zuen lekuan sartzeagatik ez da oso maitatua, ordea, San Frantziskoko polizien artean. Gainerako afrikarrek begirunea diote azitia dela uste baitute. Toure badaki iruzurti bat dela, baina dirua behar duenez aztiarena egingo du. Bilbo zuriko emakume aberatsek bestelako lanak eskatzen dizkiote gure lagunari; Toure prostituziora joako du inolako lotsarik gabe.


Bere egoeraz jabeturik, afrikarrek izan ohi duten baikortasunaz begiratzen dio bizitzari eta ahalik eta hoberen bizitzaren saiatzen da, San Frantziskon egun batean ezusteko bisita duen arte. Bere ustezko anaia bat agertuko zaio etxe aurrean, eta berari lagundu ostean sekulako buruhausteak sortuko zaizkio.

### Atzerritarrak

Lehenengo eta oraingo San Frantziskoren arteko konparaketa bat ere bada istorioa, eta kritika soziala egiten du. «Lehen auzoa Miribillako mehatzetan lan egitera Estatuko hegoaldeko etorri zen jendez beteta zegoen, orain gehienbat afrikarrek daude, baina biak dira atzerritarrak, biek jasan dituzte egoera latzak», aipatu zuen idazleak. Hala ere, ez zuen aukera galdu nahi izan San Frantzisko auzoan egiten dituzten ekitaldi politika eta integratzaileak aipatzeko. Adibidez, bertan sortu zen "Munduko Arrozak" festa gastronomikoa.

## donostiakultura.com


### ANTZERKIA TEATRO



### MUSIKA

**KANTU JIRA ETA KANTU AFARIA** **GAUR HOY**  
LAGUNEKIN KANTARI  
Intxaurren  
Maiatza 24 Mayo. 20:00 + 22:00  
● euskara

**ESTA NOCHE NO ESTOY PARA NADIE**  
KITI MÄNVER, GISELA, BRUNO SQUARCIA  
Victoria Eugenia  
Maiatza 31 Mayo-Ekaina 02 Junio  
20:00 ● castellano




**NANCYS RUBIAS**  
Intxaurren K.E.  
Maiatza 25 Mayo. 22:00

### LITERATURA



**EL RESTAURADOR DE ARTE** **GAUR HOY**  
JULIAN SÁNCHEZ  
LIBURU AURKEZPENEA  
PRESENTACIÓN DE LIBRO  
San Telmo Museoa (Eliza Iglesia)  
Maiatza 24 Mayo. 20:00  
● castellano




**SOUL SUPREME**  
Victoria Eugenia Club  
Maiatza 31 Mayo-Ekaina 01 Junio  
31. 22:00 / 01, 24:00

### DAMUTZEN EZ DIRENAK


ITXASO ARAQUE  
LITERATUR SOLASALDIA  
TERTULIA LITERARIA  
Liburutegi Nagusia  
Biblioteka Central (San Jeronimo)  
Maiatza 27 Mayo. 19:30  
● euskara

### KULTURA



**OLATU TALKA** **GAUR HOY**  
ROMPEOLAS  
Donostia - San Sebastián  
www.olatutalka.eu  
Donostia 2016  
Maiatza 24-26 Mayo

### ZINEMA



**LOS VIAJES DE SULLIVAN**  
(SULLIVAN'S TRAVELS, 1941)  
BIDEO-FORUMA  
Ernest Lluch K.E.  
Maiatza 27 Mayo. 19:15  
● castellano

### HAURRAK INFANTIL

**EURIA**  
FAMILIENTZAKO BISITA-TAILERRA  
VISITA-TALLER FAMILIAR  
San Telmo Museoa  
Maiatza 25 Mayo. 17:00  
● euskara  
Aldiz aurretik izena eman behar da  
Es necesario inscribirse  
santelmo@donostia.org

**LA TIENDA DE LOS HORRORES**  
(LITTLE SHOP OF HORRORS, 1986)  
NOSFERATU  
Antzoki Zaharra T. Principal  
Maiatza 29 Mayo. 20:00  
● VOS castellano

SARRERAK ENTRADAS  
Lehatlak Taquillas - www.kutxasarrerak.net  
BAZKIDEAK SOCIOS -10€

